

Garoñaren kontrako Foroa. 2017.03.24

Prentsa oharra

Korrika egin: Garoñan ihes erradiaktiboa!

Ondo iruditzen zaigu Iberdrolak emergentzia nuklearraren simulazioa egitearen ideia. Lehenengo aldiz, aitortu dute Garoñako zentral nuklearrak Txernobil edo Fukushima moduko istripu larri bat izan dezakeela eta herritarrek horrelako egoera baten aurrean zer egin behar duten esatea oso ondo dago.

Horregatik Iberdrolak antolatu duen gaueko lasterketa ideia itzela da, herritarrok edozein momentutan etxetik ospa egiteko prest egon gaitezen, baita gauean ere. Ez dugu ahaztu behar istripu nuklear bat edozein momentutan gertatu daitekeela (Txernobilekoa gaueko 1:30etan gertatu zen) eta herritarrek ez dakite istripuren bat egonez gero zein den jarraitu beharreko protokoloa.

Horrelako bat gertatuz gero, utzi dena eta atera korrika, ahalik eta urrutien joateko. Bilbo, Garoñatik 60 kilometrotara dago eta beraz, bere kutsadurako eremu barruan bete-betean, Bizkaiko gunek gehienak eta Araba osoa bezala.

[Txernobil](#)en eta [Fukushima](#)n 200.000 lagun baino gehiago hil dira, 700.000 milioi euroko galerak, 500.000 desplazatu.... Ez dezagun Garoña zabaltzen utzi!

Orain korrika egin ezin duten herritarrekin, istripua egonez gero, istripu simulazioa nola egingo duten jakitea falta zaigu, alegia, nagusiekin, umeekin eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonekin.

Ondoren Garoñaren kontrako Forokoek Iberdrolan utzi duten gutuna, istripuaren simulazioan laguntza eskaintzeko.

Nota de prensa

¡¡Corre: escape radiactivo en Garoña!!

Nos parece muy bien el cambio que están teniendo los de Iberdrola haciendo el simulacro de emergencia nuclear. Es la primera vez que reconoce que la central nuclear de Garoña puede tener un accidente tan grave como Txernobil y Fukushima y hace formación a la población para saber qué hacer en ese caso.

Es por eso que la carrera nocturna de Iberdrola es una idea estupenda con el fin de que la ciudadanía esté preparada para salir pitando en cualquier momento. No debemos olvidarnos de que un accidente nuclear puede ocurrir a cualquier hora del día, incluso a la noche (el de Txernobil fue a la 1:30) y la gente desconoce el protocolo de actuación en caso de accidente.

En el caso de que pasara algo parecido hay que dejarlo todo y salir corriendo, para ir lo más lejos posible. Bilbao está solo a 60 km. de Garoña y por tanto dentro de su área de contaminación, al igual que el resto de Bizkaia y Alava.

[Txernobil](#) y [Fukushima](#): más de 200.000 personas muertas, 700.000 millones de pérdidas y 500.000 de desplazados/as... ¡No dejemos reabrir Garoña!

Ahora queremos saber como se orientará el simulacro para todas esas personas que no puedan salir corriendo, como las personas mayores, niños o personas con problemas de movilidad.

A continuación la carta entregada hoy en Iberdrola ofreciendo nuestra colaboración en el simulacro.

Iberdrolari gaur emandako gutuna

Iberdrola SA
Ignacio Galan jauna

Iberdrolak antolatutako gaueko lasterketan laguntzeko prestutasuna

Garoñarekin kontrako Forokoak gaituzu eta gutun honen bidez Iberdrolak antolatutako gaueko lasterketan lagundu nahi duela adierazi nahi dizugu.

Ondo iruditzen zaigu Iberdrolak emergentzia nuklearraren simulazioa egitearen ideia. Lehenengo aldiz, aitortu duzelako Garoñako zentral nuklearrak Txernobil edo Fukushima moduko istripu larri bat izan dezakeela eta herritarrek horrelako egoera baten aurrean zer egin behar duten esatea oso ondo dago.

Korrika egiteak ezin hobeto adierazten du Txernobil edo Fukushiman bezalako istripu bat Garoñan edo estatuko edozein zentraletan gertatuz gero egin behar dena: ez hartu etxeko ezer eta arropa gutxirekin ahalik eta lasterren hanka egin, ahalik eta urrutien joateko.

Ihes erradiaktiboen kutsaduragatik korrikalari batzuk hiltzeko arriskua dagoenez (ez dezagun ahaztu Txernobil eta Fukushimak 200.000tik gora heriotza kopurua kalkulatu dutela zenbait ikerketek) Forokoek neurketa erradiaktiboa egitea eskainiko die, kutsadura erradiaktiborik duten jakiteko.

Horrez gain, lasterketa San Mames futbol zelaitik pasatuko denez, bertan, ihesean doazen herritarren behin behineko kanpamentu bat jarri litekeela proposatu nahi dizugu. Gogoan izan behar dugu Txernobil eta Fukushiman 500.000 pertsonen haien etxetatik hanka egin behar izan zutela, gehienek betiko.

Orain korrika egin ezin duten herritarrekin, istripua egonez gero, istripu simulazioa nola egingo duten jakitea falta zaigu, alegia, nagusiekin, umeekin eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonekin.

Lasterketa honek istripu nuklearrek sortzen dituzten hondamendi humano, ekologiko eta ekonomikoak hobeto ikustarazteko balioko duela uste dugu.

Adeitasunez,

2017.03.23

Garoñaren kontrako Foroa

garonarenkontrakoforoa@gmail.com